ASTEKARIA - 2012ko uztailaren 6an - XVI. urtea - Usurbil, 497. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua!!



**Ugarten 18 etxebizitza eraikitzeko asmoa du Udalak**

## Partehartze handiko festak izan dira




BEHERAPENAK
-%30
Marije
Arropa denda
Denboraldi berria!
Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL


MIKEL AKADEMIA
Talde murriztuak eta pertsonalizatuak
·Lehen eta Bigarren hezkuntza
·Batxilergoa ·Selektibitatea
·Lanbide heziketa
·Ikasketa teknikoak
·Hizkuntzak
629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
943 36 46 00
www.lhusurbil.com
Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak
Administrazioa eta kudeaketa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.
Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.
MATRIKULA ZABALIK uztailaren 5etik 11ra

Albistea iruditan

# Nagusien mailako txapela etxean geratu zen

Markagailua 17-20 zegoenean, askok galdutzat eman zuten partida. Baina Xabi Santxo ez zegoen etsitzeko prest. Berdintzea lortu zuenean, frontoiko giroa berpiztu egin zen. Eta herritarren berotasun horri esker, markagailuari buelta eman eta 22-20 nagusitzea lortu zuten Santxok eta bere bikote Landaburu elorriotarrak. Argazkian dira finalean lehiakide izan zituztenak, Aizpiri-Zubiri pilotariak.

Jubenilen mailan, Labaka eta Iruretagoiena nagusitu ziren, 22-14ko emaitzarekin Untxalo-Goñi gainditu ondoren.



BEHEAN, EZKERRETARA LEHENA DA XABIER SANTXO.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete txapelketan zehar laguntzaile aritu diren etxe hauei: Udala, Andazpe elkartea, Peña Pagola, Kima masajeak, Kutxa, Bruño, Easo Container, Hurbilago, Aizpurua autobusak, Bordatxo edaritegia, Carpas Loiola, Saizar sagardotegia eta Aginaga sagardotegia.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 943 369 113 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KzGunea | 943 023 684 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Jaietan nafar bandera jartzeko mozioa, onartua

**43 herritarren sinadurak babesturiko mozioa aurkeztu eta onartu zen, ekainaren 26ko osoko ohiko bilkuran. Testu honen bidez, herritar talde honek eskaera argi bat luzatzen zion udalbatzari: "Usurbilgo jaien karietara, herriko lagun talde batek nafar bandera udaletxeko balkoian jartzea eskatzen dugu, Euskal Herriko bandera nazionala denez gero".**


USURBILGOA, IKURRINA ETA NAFAR BANDERA EGON DIRA JAIETAN ESKEGITA.

Eskaera gehiengo osoz onartu zen, Bilduk eta Aralarrek alde bozkatu baitzuten. EAJ-PNV eta Hamaikabat abstenitu ziren. Hamaikabateko bozeramaile Luis Mari Ormaetxeak euskaldunen bandera nazionala, nafar bandera ez, ikurriña dela aldarrikatu zuen.

Mozioak zehazten duenez, bandera nafarrak "500 urtez okupatuak izan ondoren bizirik mantentzen den giza taldea adierazten du, mundu zabalean bere identitate eta kultura propioekin, inposatutako menpekotasunetatik at, egon nahi duena. Ez dugu morroiaren estatusa nahi; gure burujabetasunean oinarriturik gizarte askea eta oso izan nahi dugu. Eta askatasunaren ikusmolde hau bandera nafarrean dago islaturik, herrialde independente baten sinboloa izan zen aldetik".

# Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko lan deialdia

**Bake-epaile titular eta ordezko berri bana hautatzeko prozedura martxan jarri behar duela jakinarazi dio Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak Usurbilgo Udalari. Horregatik, gai hau ekainaren 26ko osoko bilkurara eraman zuen Bilduk eta aho batez onartu zuen udalbatzak.**

Hiru puntuko proposamenean, prozedura honen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hilabeteko epea finkatzen da, "interesa dutenek eskaerak aurkez ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioko Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira". Epe berean, deialdia jendaurrean ikusgai jarriko da.

Udalak zehaztua duenez, hiru baldintza nagusi bete beharko dituzte deialdi honetara aurkezten direnek: Espainiar Estatuko nazionalitatea izatea, adinez nagusia izatea eta Botere Judizialeko Lege Organikoko 102., 302., 303. eta 389. artikuluek Kargu judizialetarako aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzea.

## 2012ko Lanpostuen Zerrenda

Bestalde, gobernu taldeak 2012ko udal Lanpostuen Zerrendan txertatu asmo dituen bi aldaketa berri proposatu zituen aurreko asteko saioan. Batetik, Udaletik kanpo egin beharreko lanak direla eta, udal garbitzaileei B gidabaimena eskatzea eta lanalditik kanpo ordu gehiago sartzen dituztela jakinik, "1 operarioa" egungo lanaldi arruntetik lanaldi luzatuko modalitatera aldatzea. Bilduren aldeko bozkekin atera zen aurrera proposamena. Aralar eta EAJ-PNV abstenitu ziren eta Hamaikabatek aurka bozkatu zuen.







# Igerilekuak jartzeko udal ordenantza onartu du udalbatzak

**Hirigintza, zerbitzu eta ingurumen departamenduen arteko elkarlanez, igerileku pribatuen instalazioa arautzen duen udal ordenantza aurkeztu eta onartu zen ekainaren 26an burutu zen osoko ohiko bilkuran.**

Bildurekin batera, Aralar eta EAJ-PNV-k babestu zuen proposamena. Hamaikabat abstenitu zen. Hasieraz onartu eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedabideetan argitaratuta, alegazioak aurkezteko 30 lan eguneko epea egongo da. Ordenantza proposamen hau mahai gaineratzeko asmoa, Udalak gai honi lotuta jasotzen ari den eskaeren harira dator. "Erabilera pribatuko igerilekuak ugaritu izanak eragin zuzena du udalerriko ur-kontsumoan eta horrek, aldi berean, hura arautu beharra eragin du hirigintzako arrazoiak zein Usurbilgo baliabide hidrikoei lotutako ingurumen-arrazoiak direla eta", adierazten du udal teknikariek osaturiko txostenak.

Halaber, ordenantza honen helburua zein den zehazten dute: "igerilekuen instalazioaren kontrol teknikoa eta hirigintzakoa egitea eta ura modu arduratsuan erabiltzea da. Era berean, igerilekuen mantentze-lanekin, funtzionamenduarekin eta erabilerarekin lotutako erantzukizunak zehaztu nahi dira. Horrekin lotuta, segurtasun-baldintzak erabiltzea eta etxebizitzetakoekiko eta instalazio osagarriekiko ezberdinak diren ur-hartuneak instalatzea eskatuko da".


ANTZEKO IGERILEKUAK UGARITU EGIN DIRA ETA HORREK ERAGIN ZUZENA IZAN DU UR-KONTSUMOAN.

# Harrera ona izaten ari da etxeko olioaren bilketa kanpaina

**Duela aste batzuetatik hona, etxeko sukaldean erabili ohi den olioa honako dendetan jasotzen ari dira: Alkartasuna kooperatiba, Imanol Txapartegi harategia, Aliprox supermerkatua, Alkorta Autozerbitzuak, Artzabal supermerkatua, Esnaola Echave, Otar Goxo, Txalaka fruta denda eta Eiza denda. Horretaz gain Garbigunean, herriko hiru emergentzia puntuetan eta San Markoko kamioi ibiltarian ere jasotzen da.**

Olioa plastikozko edo beirazko edukiontzi batean eraman behar da gune hauetara. Ez dago ontzi jakin bat, etxean sortzen diren poteak berrerabili daitezke olio hori jaso eta toki horietara eramateko. Beti ere, herriko dendak zabalik dauden ordutegian.

## Trukean, sari-txartelak

Trukean, herriko dendariek txartelak banatuko dituzte olioa utzi duten herritarren artean. Badira 10 euroko saria duten txartelak eta dendan bertan erabili ahal izango dira, erosketa egiteko. Ekimen honen bitartez biltzen den olioa Ekogras enpresara eramango da, biodiesela ekoitzi dezaten.


EROSKETA TXARTELAK BANATZEN DITUZTE BEZEROEN ARTEAN.

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ETXETRESNEN KONPONKETA
MARKA GUZTIAK, PREZIO ONEAN
645417665
(XABIER)
Usurbil

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

## EAJ-PNV alderdiaren balorazioa, legealdiko lehen urtean

# "Gauzak datozen bezala egitea da udal honen zeinua"

**Legegintzaldiaren lehen urtea bete da. Aitzakia hau baliatuz, udalbatzan ordezkatuta dauden alderdien balorazioak jasotzen ari gara. Aralarreko zinegotzien eta Hamaikabat-eko Luismari Ormaetxea zinegotziaren zein bozeramalearen hitzak jaso ondoren, Usurbilgo EAJ-PNVkoen txanda da.**

**NOAUA! Legealdi berria abiatu zenetik urtebete igaro da. Nola joan da lehen urte hau?**

**Usurbilgo EAJ-PNV.** Erantzuna galdera berean dago. Hori da gertatu dena, egunerokotasunean murgilduta urtea igaro egin da, ez da lana proiektu jakin bati lotua egin baizik eta gauzak etortzen diren moduan konpondu, zuzendu edo kudeatu egin dira, ez da proiektu jakinik ikusten, bakarrik ahal den modurik onenean, jardun.



ANDONI ATXEGA EAJ-PNVKO ZINEGOTZIA, TXUPINAZOAREN EKITALDIAN.

### AUDITORIA UDALARI

"Kezka sortzen digu eta emaitzen zain gaude balorazio zuzenago bat egin ahal izateko"

**N. Bilduk gehiengo osoa lortu zuen aldetik, zer nolakoa da oposizioko alderdien lana? Zuen iritziz, hartu-emana egokia al da udal gobernuaren eta oposizioko taldeen artean?**

**EAJ.** Bilduk orokorrean oposizioarekiko jarrera positiboa agertzen du. Esan bezala, kudeaketari lotuta ez da ezberdintasun handirik sortu oposizio eta agintearen artean. Hala ere oposizioa osotasunean aurka azaldu izan denean, aurrekontuetan bezala, gure ustez gehiago egin zezaketen, hauek kontsentsu handiagoarekin onartuak izan zitezen.

**N. Badirudi ikastolaren proiektua asko garestitu dela eta *impasse* egoeran dagoela eraikin berria. Akaso hau izango da datozen urteetan zeresan gehien emango duen arloa, ezta, hezkuntzarena. Zein da EAJ-PNVren planteamendua alor honetan?**

**EAJ.** Udarregi da egun Usurbil kaxkoan dagoen ikastetxe bakarra, eta beraz, mantendu beharrekoa.

Hala ere, Usurbilek hezkuntza publikoko ikastetxearen beharra du, eta hau izatea gure lehentasunetako bat da.

**N. Etxebizitza arloari dagokionez, Agerreazpi eta Sekañako promozioak aurrera doaz. Ugartondoko proiektua, ordea, badirudi geldirik dagoela. Gai honen inguruan Udala egiten ari den kudeaketaz zein balorazio egingo zenukete?**

**EAJ.** Esanda bezala gauzak datozen bezala egitea da udal honen zeinua. Eta Ugartondokoa bera bakarrik ez datorrenez ez du udalak ezer egiten hau bultzatu eta aurrera ateratzeko.

**N. Krisiaren eragina zer mailatan igartzen da herrian? Uste duzue Udala, dagokion esparrutik beti ere, ari dela neurri egokiak hartzen?**

**EAJ.** Hemen ere esan behar lana udaletik ondo egiten dela, baina egoerak eskatzen duen bezalako plan berezi eta eraginkorrik ez dela abian jarri.

**N. Eta Udala bera zein egoeratan dago? Zorpetze maila handia duela uste al duzue ala egoera jasangarrian al dago?**

**EAJ.** Badirudi zorpetze maila ez dela handiegia baina Euskal Herriko kontu Epaitegia une honetan auditoria bat egiten ari da, Udalak eskatu gabekoa, honek kezka sortzen digu eta emaitzen zain gaude balorazio zuzenago bat egin ahal izateko.

## "Aldundiaren plana oso aste gutxitan egina dago, inprobisazio ugariekin"

**NOAUA! Hondakinen inguruko plan eguneratuaren berri eman zuen duela hilabete Foru Aldundiak. Egin den proposamenaren inguruan zein iritzi duzue?**

**Usurbilgo EAJ-PNV.** Hasteko, Aldundiak Alduntzin jaunaren eskutik aurkeztu duen plan berria ez da bere izenak dioena, alegia, ez da plan "eguneratu" bat, gaur egun indarrean dagoena errotik aldatzen duena baizik. Hori horrela da zaborraren kudeaketa integralerako aurreikusita zeuden sistema eta azpiegitura nagusiak alde batera uzten dituelako, eta Europaren irizpidearen kontra joanez zuzen-zuzenean (oso bestelako diskurtsoa erabiltzen duten arren) hain zuzen zabortegi berriak zabaltzearekin amaitzen duelako plana. Izen hori jarri diote helburu bakar batekin: Batzar Nagusietatik pasatu beharra saihestu nahian. Alegia, lege guztiekin gertatzen den bezala, indarrean dagoena aldatu behar bada, hura onartu zuen legebiltzarrak bakarrik aldatu dezake, lege berri baten bidez. Baina Bilduren Aldundiak ez du saiakera hori nahi, hain zuzen arrazoi bakar batetik: Batzar Nagusietako herri ordezkaritza gai honetan Bilduren proposamenaren kontra dagoelako. Bilduk ez duelako Batzar Nagusietako gehiengoa kontrolatzen, hitz batean. Zeharo jarrera antidemokratikoa, gure ustez.

Planak berriz, esan bezala, Europako aginduen kontrako bidea proposatzen du. Europak hauxe esaten duelako: birziklapena eta berrerabilera sustatu behar direla, ezin dela birziklagarria dena erre, zaborrari eman ahal duen etekin guztia atera behar zaiola (eta honetan, argindarra egiteko gaitasuna barneratuta dago, jakina) eta beraz birziklagarria ez dena bakarrik erre daitekeela, edo beste era batera esanda, birziklagarria ez dena argindarra sortzeko erre behar dela, eta zabortegiak itxi egin behar direla.

Aldundiaren plana oso aste gutxitan egina dago, inprobisazio ugarirekin, indefinizio askorekin (non joango dira zabortegi berri horiek?), eta diru kontuen kalkuluak berriz, oso azalekoak dira, eta inolako kontraste teknikorik gabe, agertzen dira.



EAJ-REN USTEZ, ALDUNTZINEN "PLANAK EUROPAKO AGINDUEN KONTRAKO BIDEA PROPOSATZEN DU".

## "Txalotzekoa da Sorturen legeztatzea, beti egon gara Alderdien Legearen aurka"

**NOAUA! ETAk jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki duela jakinarazi zuen iragan urrian. Geroztik hona, eman dira hainbat pauso. Bakegintza arloan, itxaropentsu izateko garaia dela uste al duzue?**

**Usurbilgo EAJ-PNV.** ETAren urriko iragarpenak armak isildu zituen, makina batentzat berria benetan pozgarria izan zen, familia askori lasaitasun galanta ekarri ziona. Horixe izan da Ezker Abertzaleak hainbeste goraipatzen duen "garai berriak" ekarri duen benetako aldaketa. Baina ez da ahaztu behar jarduera armatua ez dela hausnarketa etiko batetik eratorri, jarduera armatuaren eragin-kortasun ezari buruzko balorazio batetik baizik. Edonola, ongi etorria. Zalantzarik gabe, egun bizi dugun egoera mila aldiz hobeagoa da azken hamarkadetan euskal gizarteak pairatu duena baino.

Hala ere, gure ustez, Ezker Abertzaleak azalpenak zor dizkio euskal gizarteari. Ezin du jardun denok urriaren 20an jaio izan bagina bezala. Zein onura ekarri dizkio estrategia militarrak Euskal Herriari? Erakarritako kalteak eta ondorio mingarriak bai, horiek bai, denok ezagutzen ditugu.

Harrezkeroztik gertatutakoen artean, txalotzekoa da Sorturen legeztapena. Beti egon gara Alderdien Legearen aurka, inoiz ez dugu onartu Estatu Estrategia jakin baten baitan eginiko eszenatokia, jazarpen politikoarena, alegia. Eta hemendik aurrera ere badago zer eginik, noski, presoen egoerari irtenbidea eman beharra dago. Eta jarduera politikoari dagokionez, elkarbizitzarako bidean ahaleginak egin beharra dugu, elkarren arteko lankidetza posible egiteko, elkarren arteko begirunea orain baino askoz ere gehiago indartzeko.

# Sekañako obra-hitzarmena hilabetez luzatzea erabaki du udalbatzak azken plenoan

**Sekaña eremuko II. Fasea Urbanizazio Proiektua exekutatzeko obra kontratua hilabetez luzatzea onartu zuen udalbatzak, ekainaren 26an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Gobernu taldearekin batera, EAJ-PNV eta Aralar udal taldeek babestu zuten erabakia, Hamaikabat abstenitu zen, eta PSE-EE-ko udal ordezkaria ez zegoen aipatu saioan.**

Sekañako obren kontratua uztailaren 13ra arte luzatua geratu da, aipatu moduan, aurreikusia zegoena baino hilabete gehiagoz. Modu honetan, ekainaren 12an 2012/0560 dekretuaren bidez harturiko erabakiak berretsi ditu udalbatzak.



UZTAILAREN 13RA ARTE LUZATU DUTE KONTRATUA.

**HILABETEKO LUZAPENA**

Uztailaren 13ra arte luzatua geratu da Sekañako obren kontratua, aurreikusi baino hilabete gehiagoz

Eremu berari lotuta bestalde, "kontratistari lan programa aurkezteko epea ezarriz, Alkateak 2012ko ekainaren 18an, 2012/0586 dekretuaren bidez hartutako erabakiak berrestea" onartu zuen udalbatzak. Hamaikabat abstenitu zen, gainerakoek alde bozkatu zuten.

### Herri-bideak

Ez zen izan, joan den astean udalbatzak berretsi zituen dekretu bakarrak, hirugarren bat ere berretsi baitzuten. 2012/0585 zenbakiduna, herri-bideei loturikoa. Herri-bideen inbentarioa behin betiko onartzearen aurka tartekatutako auzi errekurtsoetan parte hartzeko abokatu eta prokuradoreak izendatzea proposatzen zuen gobernu taldeak. Mertxe Aizpurua alkateak berri eman zuenez, hiru auzi errekurtso tartekatu dira eta aipatu moduan, Udala ordezkatuko duten abokatu eta prokuradoreak izendatzea mahai gaineratu zen aurreko asteko osoko bilkuran. Proposamenaren alde agertu ziren Bildu eta EAJ-PNV. Abstentziora jo zuten Aralar eta Hamaikabatek. PSE-EE-ko udal ordezkaria ez zegoen ekainaren 26ko osoko bilkuran.

Gai zerrendako puntu honen aurretik, bazen herri-bideei loturiko beste aztergai bat ere. Hain zuzen, herri-bideen inbentarioaren behin betiko onarpenaren aurrean tartekatutako administrazio helegiteak erantzutea zen puntu honen helburua. Alkateak zehaztu zuenez, 4 administrazio helegite tarkekatu dira. Formaz, haietako bat aintzakotzat ez hartzea proposatzen zen osoko bilkuran, eta gainerako hirurak ere aintzakotzat ez hartzea, edukiagatik. Bildu, Aralar eta EAJ-PNV proposamenaren alde agertu ziren, Hamaikabat abstenitu zen.

## 18 etxebizitza berri eraikiko dituzte Ugarten

Ugarte eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betikoz onartu zuen udalbatzak, ekainaren 26ko osoko ohiko bilkuran. Alde bozkatu zuen Bilduk. Aralar, Hamaikabat eta PSE-EE abstenitu ziren. Mertxe Aizpurua alkateak egitasmo honen inguruko zenbait zehaztasun aurreratu zituen, saio berean. Batetik, 18 etxebizitza berri eraikiko direla Ugarten. Aurreikusiak zeudenak baino lau gehiago. Alkateak berri eman zuenez hain zuzen, etxebizitza behean ere beste lau bizileku eraikiko baitira. Horrez gain, baita espaloi bat ere eraikin inguruan. Eta Aizpuruak gaineratu zuenez, hamar aparkaleku berri ere jarriko dira.



AURREIKUSI BAINO LAU ETXEBIZITZA GEHIAGO ERAIKIKO DIRA.

### Ingurunea babestuz

Ugarte atari aurrean, haritz handi bat dago egun. Zuhaitz hau babesteko neurri bereziak hartuko dituela iragarri zuen alkateak, azken osoko bilkuran.


Euskal Herrian
ihesi
Lurraldeak
Zonaldeak
Gomendioak
Jarri zure bannerra
Gehitu herri bat
Proposatu zerbait
Osa dezagun guztion artean geure gida sarean
Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko egun berezirik gomendatzen al dute?
Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria
ihesi.com
Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa
Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko ihesi erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zure proposamenak egiteko lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...
argia proiektua


SANTIXABEL JAIAK 2012
WWW.NOAUA.COM WEB ORRIALDEKO ARGAZKITEGIAN IKUSGAI.
ESKUKO TELEFONOAREN BITARTEZ ERE IKUS DEZAKEZU,
KODE HAU BALIATUZ.
ZUREAK ERE GURE WEB ORRIAN IKUSI NAHI?
BIDALI SANTIXABEL JAIETAN ATERA DITUZUN ARGAZKIAK
ERREDAKZIOA@NOAUA.COM HELBIDERA ETA DAGOENEKO SAREAN
DIRENEKIN BATERA IPINIKO DITUGU ZUREAK

# Akabo, bost eguneko jai giroa

**Amaitu da bost eguneko parranda giroa, egunez zein gauez noiznahi festa giroko ekitaldien ospakizuna, senide zein lagun arteko bazkari eta afariak, algarak, jende mugimendua… Agurtu ditugu aurtengo Santixabelak. Baina festek utzi digute bai nabarmentzeko modukorik ere.**


OILASKO BILTZAILEAK, GOIZEAN GOIZETIK XAHUTUTAKO INDARRAK BERRITZEN.

Inguruan ditugun gertuko zenbait udalerri ere festetan murgilduak egonda, eta horrek Santixabel hauetara etor zitekeen jende kopuruan eragina izango zuela aurreikusirik ere, joan den astebururu bueltan mugimendua ibili da herrian. Besteak beste, ostiral gauean ospatu zen kontzertu gauean.

Baina nabarmentzeko moduko ekitaldirik utzi digute aurtengo festek. Santixabeletako txupinazo ekitaldia adibidez. Emozioz beteriko hitzordua izan da aurtengoan. Atzegiko kideen eskutik hasi ziren festak. Dema plazan jarri zuten oholtza gainean bildu ziren, herrian ezagunak ditugun hainbat lagun. Eurak Santixabelak goraipatuz, bertaratutakoen babes eta txalo zaparrada jaso zuten.

Biharamunean ospaturiko Oilasko Biltzaileen Egunean ere, gazteek primeran pasa zuten.

Gazteak aipatuta, ITAYA-k antolaturiko ekitaldi ugariak ezin nabarmendu gabe utzi. Desfile eta txapelketak, afariak, kontzertuak… Eta jaiak borobiltzeko, gaztetxearen alde burutu zuten ekimena astelehenean eta Santixabelak agurtzeko azken trakan eskaini zituzten euskal dantza saio bikaina eta txalotua.

Aurtengo jaiek garai bateko ohitura bat berreskuratzea ere ekarri dute; udal ordezkari talde batek Santixabel egunez dantzatu zuen soka-dantza. Bidea irekita utzi dute, aurtengo esperientzia urtebete barru errepikatu eta ekitaldiko parte hartzea zinegotzi gehiagorengana zabaltzeko. 2013ko jaietarako hain zuzen, gutxiago geratzen da jada.














Herritik herriarentzat
HERRI bat GAZTETXE











# Udako Antzerki Eguna, uztailaren 14an

**Aurten ez da Kale Antzerki Egunik ospatu herrian. Zaletu eta herritarrek ordea, dosi txikiagoetan arte eszenikoei loturiko hitzordu bat baino gehiago izango dituzte datozen hileotan. Urtean behin ospatzen zen egun osoko jaialdia formatuz aldatu eta lehen ekimena, uztailaren 14rako antolatu dute Txerriki taldekoek: ingurumen gaiak hizpide izango dituen Udako Antzerki Eguna ospatuko da zortzi egun barru.**


URTARO BAKOITZEKO ANTZERKI EGUN BAT OSPATUKO DA.

**NOAUA! Kale Antzerki Egunaren ordezko lanak egingo dituela esan daiteke?**

**Alex Tello.** Gure asmoa aurten hasi eta urtero bide honetatik joatea da; Kale Antzerki Egun erraldoi baten ordez, ederra izanik ere, lau antzerki egun egitea, xumeagoak, urtaro bakoitzeko bat.

**N. Uztailekoaren ondoren, jarraipenik izango du irailetik aurrera?**

**A. T.** Uda bukaeran, irailaren 28an Topa Eszenika izango dugu, azaroaren 3an dugu bestea. Baina datorren urtean, urtaro bakoitzean halako egun bat, ospatzea da, non egongo den formakuntza, behar dugulako. Herriarentzat ere halako tailerrak eskaintzea interesgarria da.

**N. Urtaroekin, naturarekin lotu duzue uztailaren 14ko hitzordua, ezta?**

**A. T.** Oraingoa bai. Udazkenean izango da klowna, antzerki idazketa eta gorputz adierazpena, udazkenekoa Topa Eszenikan kokatua dago... Baina denborarekin egun bakoitzak bere nortasuna edo izaera izatea gustatuko litzaidake. Horrek ahalegin bat eskatzen du, baina beste indar bat jartzen du. Momentuz, egun bakoitzari bere zentzua emango diogu, bere puntua.

> **ALEX TELLO**
>
> "Antzerki egun hauek herriarentzat dira, baita ere herrian antzerkian saiatzen garenontzat"

**N. Festak amaituta, giroa apaltzen da. Horregatik, espresuki aukeratu duzuen data izan da astebete barrukoa?**

**A. T.** Hala da. Antzerki egun hauek, dira herriarentzat, antzerki zaleentzat, baina baita ere herrian antzerkian saiatzen garenontzat. Kale Antzerki Egunean, ekintza antolatzen genuen eta egun osoa talde bezala lanean pasatzen genuen, ez genuen gozatzen. Sentitzen genuen, giroa zegoela, baina gu geunden horren mesedera, horren zerbitzua lanean, baita aurretik ere. Gu ez ginen horretaz elikatzen, eta guk behar dugu. Eta orduan, formula berri honekin, antolatzen ditugun ekintzetan parte hartuko dugu herritarren gisan, eta orduan gu ere elikatuko gara ekintzaz.

**N. Ekintzen artean, estreinaldi bat programatu duzue?**

**A. T.** "Eguzkiaren bidaia" estreinatu berria da, Irrien Lagunak-ekoa da. Gipuzkoa mailako estreinaldia izango da. Obrak merezi du, bultzada eman nahi diogu obra horri. Polita da, urtaroen ingurukoa. Galder Perezek idatzia, zuzendua, berak antzezten du. Aiora Sedano, Bilboko beste aktore batekin. Sutegira jaisten direnek ondo pasako dute.

**N. Esperimentu berri bat da hau. Zer esan herritarrei?**

**A. T.** Batetik goizeko 9:00ak aldera Jakoba Errekondorekin bueltak merezi duela. Hitzordu horretara animatu jendea, herri barruan bi orduko buelta bat izango da. Buelta polit bat izango da, non egunero ikusten ditugun txokoak deskubrituko ditugun berriz. Guretzat zerbait berria izango da, egunerokotasunean ditugun gauzak deskubritzeko. Atetxo bat irekiko digu honek eta horri lotuta, arratsaldean daukagu formakuntza.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

# "Irailean kale antzerkiak izango dira herrian"

**NOAUA! Tailerra edonorentzat ire-kia izango al da?**

**Alex Tello.** Horretarako dago irakasle bat, laguntzeko, pistak emateko. Planteamendua, goizean ezagututako txokoetan oinarritutako eszena laburrak egitea da. Hor egongo dira, bi ordu inguru bikoteka elkartu eta zer egin daitekeen ikusiz. Ondoren, zirkuitu bat egingo da, ez goizekoa bezain luzea, baina kalejira bat izango da, zortzi bat geldialdirekin. Geldialdi bakoitzean eszena bat egingo da. Esperimentu berri bat da, arriskatzen ari gara, ze ez dakigu ondo aterako den edo ez. Baina jendea apuntatzen ari da. Zortzi lagun jada badaude. Herritarrak hurbildu daitezela lasai asko eta jarrai dezatela goizeko zein arratseko bueltan. Polita izango da.

**N. Arratsaldekoa zirkuitu baten antzekoa izango da, elkarren artean lotura duten eszenekin, ezta?**

**A. T.** Independenteak izango dira. Bakoitzak berea egingo du. Bai oinarrituko direla toki horretako landare, zuhaitz edo natur elementu horretan. Baina hortik aurrera, ez dute loturarik. Dena librea da. Eta egia da, antzerkia egin daitekeela edozein lekutan.

**N. Urteetan kale antzerki egunari esker deskubritzen joan zarete baita, udalerri honek dituen hainbat eskenatoki natural?**

**A. T.** Asko eta eskura. Berezia izango da. Xumea, txikia baina bere txikitasun horretan indartsua. Gu esperimentatzera goaz, probatzera. Ia egunak zer ematen duen. Adin guztietarako; haurrak, helduak. Gu zain gaude, ia eguna iristen den eta ea nola burutzen dugun eta gero baloratuko dugu zer sentsazio dugun. Goizeko saioa ikasteko da, maitatzeko, ezagutzeko, baloratzeko. Arratsaldekoa gehiago da ludikoagoa, dibertimendurako. Goizekoa pedagogikoagoa.

**N. Prestakuntza tailerreko interesdunek izen emateko zer egin behar dute?**

**A. T.** Email bat bidali, txerriki@gmail.com helbidera. Prezioa: 5 euro. Lotsak eta aurreiritziak gainditu eta aurrera. Plaza mugatuak.

**N. Antzezlanerako sarrera nola eskuratu daiteke?**

**A. T.** Sarrera 2 eurotan jarri dugu, kontura gaitezen prezio bat duela, produktuak balio bat baitu. Askotan doan jarrita eskertu bai baina ez da behar bezala baloratzen. Emanaldira doan sartu nahi duenari, naturari loturiko marrazki bat eskatuko zaio. Marrazkia ekartzen ez duenak, bertan egiteko aukera izango du. Herrian dauden guztiak etor daitezela, ondo pasako dute.

**N. Irailera begira ere bazabiltzate.**

**A. T.** Herrian kale antzerkiak izango dira irailean. Hiru larunbat. Irailaren 8an Markeliñe etorriko da "Terapia" obrarekin. Gauekoa, ederra. Hilaren 15ean, Markeliñe berriz haurrentzako obra batekin; "ZooZoom". Parte hartzailea da. Oso gauza bereziak, irudimentsuak egiten ditu. Jendea txunditzen du. Topa Eszenika irailaren 29an eta zirkoa egiten duen talde bat etorriko da; Malas Compañias, "Orsai" lanarekin. Estreinatu berria da. Hiru obra hiru egunetan. Hartara beti dugu zerbait herrian. Ahal dela, ea lortzen dugun herriko ekintzen agendan txertatzea.



"EGUZKIAREN BIDAIA" ANTZEZLANA, UZTAILAREN 14AN SUTEGIN.

### Uztailak 14 larunbata

### egitaraua, orduz ordu

**9:30 "Usurbilgo Kaxkoan dugun natura" ezagutzeko irteera Sutegitik:** Jakoba Errekondorekin Usurbilgo natur txoko batzuk ezagutu eta naturarenganako begirada landuko dugu. Doakoa. Iraupena: bi ordu eta laurden.

**12:00 "Eguzkiaren bidaia" antzezlana Sutegin.** Sarrera: 2 euro (Naturari buruzko marrazkia ekarrita sarrera doan).

**15:30-17:30 Antzerki tailerra:** Jakoba Errekondorekin egindako ibilbidean oinarritutako eszena laburrak bikoteka prestatuko dira, Galder Perezen laguntzarekin. Potxoenea eta Sutegin. Matrikula: 5 euro. Plaza mugatuak. Izen emateko txerriki@gmail.com

**17:30 "Naturbira antzeztua" ekintza ibiltaria.** Irteera Sutegitik: trikitixarekin girotutako kalejiran, hainbat geldialdi egin eta antzerki eszena laburrak eskainiko dira. Doakoa.

**Antolatzailea:** Txerriki.

**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.





TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

# Antzerki emanaldiko protagonistak



JON OLASAGASTIK ARGAZKI HAU BIDALI DIGU E-POSTAZ. PASA DEN ASTE-ARTEAN EGINDAKO ANTZERKI EMANALDIAN PARTE HARTU ZUTEN GAZTETXO-AK AGERI DIRA.

# Lanbide Eskolan matrikulatzeko aukera, uztailaren 11ra arte

**Ostegun honetatik, uztailaren 5az geroztik zabalik dago Lanbide Eskolan matrikulatzeko epea hilaren 11ra arte.**



UZTAILAREN 11N AMAITUKO DA MATRIKULATZEKO EPEA.

2012-2013 ikasturtean, Erdi eta Goi Mailako ziklo desberdinetan trebatzeko aukera izango dute ikasleek; administrazioa eta kudeaketan; elektrizitate-elektronikan; fabrikazio mekanikoan; ura eta energian; produkzio zerbitzu eta mantenuan. Eskabideak bulego ordutegi honetan aurkez daitezke; astelehenetik ostegunera, 9:00-14:00 artean eta 16:00-18:00 artean; eta ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago: 943 364 600 edo www.lhusurbil.com

## Gaztelekuko udako ekintzak, egunotarako

Hauexek dira Gaztelekutik DBH-ko ikasleentzat egunotarako antolatu dituzten hitzorduak:

**UZTAILAK 5, OSTEGUNA**
10:45-19:00 Donostiara piraguismoa egitera. Nori zuzendua: DBH 2.

**UZTAILAK 6, OSTIRALA**
11:00-19:00 Hendaiara irteera. Tren geltokitik hondartzara oinez. Nori zuzendua: DBH 2.

**UZTAILAK 10, ASTEARTEA**
11:00 Andatzako irteera prestatu Gaztelekuan: janaria, kanpinga, guraso baimenak. Nori zuzendua: DBH 3.

**UZTAILAK 12-13, OSTEGUN ETA OSTIRALA**
Andatzara irteera ostegunean 18:00etan. San Estebanen lo egin. Eta hurrengo egunean buelta, 14:00etan.

## DYAren ikastaroa

Sorospen eta Lehen Sorospen ikastaro berri bat antolatu du DYA Gipuzkoak. Datorren astelehenean, uztailaren 9an jarriko da martxan. Bi asteko iraupena izango du eta Artzabalen burutuko da. Goizero, 10:00-13:00 artean. Izena eman edo informazio gehiagorako: 943 46 46 22.





# Pirinioetako irteera, uztailaren 14 eta 15ean Andatzakoekin


ANDATZAKO HAINBAT LAGUN, ERRIOXA INGURUAN EGINDAKO IRTEERAN.

**Errioxatik ekarritako oroitzapen politak gogoan dituzte Andatzako kideek. Baina dagoeneko Pirinioetara begira daude. Datorren asteburuan abiatuko dira hara. Bada izena emateko aukera oraindik.**

Piedrafitako zirkora abiatuko dira uztailaren 14an Andatza Mendi Kirol Taldeko kideak. "Autobusa betetzen ari zaigu baina oraindik plaza libreak daudenez, joateko asmorik baduzu, lehenbailehen eman ezazu izena", ohartarazi nahi dute Andatzakoek.

### Izen-ematea

Ikasleek eta Andatzakoek 60 euro ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 65 euro, aterpeko pentsio-erdia eta autobusa barne direlarik. Izena ematerakoan 20 euro jarriko dira.

Izena emateko epea: uztailaren 9a astelehena.

Non eman izena: Andatza Mendizale Elkarteko 2101 0069 16 0121883656 kontu zenbakian (Kutxa) uztailaren 9a baino lehen. Izena ematerakoan 20 euro sartu behar dira.

### Datorren astean bilera Sutegin

Uztailaren 12an osteguna, bilera egingo dute Sutegin, arratsaldeko 19:00etan, "ibilaldira joan behar dugun guztiok, ibilbidearen xehetasunak, ordutegiak, argibideak eta eraman beharrekoak argitzeko".

Gogoan izan federatzea garrantzitsua dela. Andatza Mendizale Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietako eta irteeretako federatuen istripuak, mendi federazioko aseguruak babesten ditu. Gainontzeko partaideen asegurua norberaren ardura da.

Informazio gehiago eta ibilbidearen mapa eta profilak www.andatza.com web orrian aurkituko dituzu.

## Eskalada ikastaroa, bertan behera

Asteburu honetarako aurrikusia zegoen eskalada ikastaroa bertan behera geratu da. Andatzakoek adierazi digutenez, "aurrerago beste ikuspegi batekin eskaladari ekiteko asmoa badugu eta honen berri ere izango duzue".

## Zubietako errebote taldea finalera iritsi da

Zubietako taldeak hitzordu garrantzitsua du datorren astean. Azken orduko aldaketarik ez bada behintzat, Iparraldeko Errebote Txapelketako finala jokatuko du uztailaren 12an, 2. Mailari dagokion norgehiagoka. Hauek dira finalera sailkatu diren jokalariak: Joseba Aizpurua, Josu Aizpurua, Ugaitz Rezola, Imanol Aizpurua eta Jon Argote. Finala uztailaren 12an jokatuko dute, Donapaleuko plazan (Behe Nafarroa), goizeko 10:30ean.


DONAPALEUN JOKATUKO DUTE FINALA.









## Agenda !!

### Uztailak 9 astelehena
**- Odol ematea anbulatorioan,** 18:00-20:30ak bitartean.
- DYAko ikastaroaren hasiera, Artzabalen, 10:00-13:00. Datu gehiagorako: 943 46 46 22.

### Uztailak 14 larunbata
- **Herri Batzarra** Aginagako ludotekan, 18:30ean.
- **Udako Antzerki Eguna** (ikus 12. orrialdea).
- **Pirinioetara irteera Andatzarekin** (ikus 15. orrialdea).

### Goardiako farmaziak

**Uztailak 5, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 6, ostirala**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Uztailak 7, larunbata**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 8, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 9, astelehena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 10, asteartea**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Uztailak 11, asteazkena**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Uztailak 12, osteguna**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Uztailak 13, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 14, larunbata**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 15, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
***Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 552 087.***
***Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)***

# Iker Vicente nagusitu zen Euskal Herriko aizkolari txapelketan

**Euskadiko Aizkolari Txapelketa jokatu da aurtengo festetan, gazteen artekoa. Oso ikusgarria izan zen Iker Vicente eta Eneko Goñiren arteko lehia. Azkenean, Iker Vicente Otsagabiako aizkolaria nagusitu zen, eta bi segundura amaitu zuen bere lana Eneko Otaño beizamarrak. Gainontzeko aizkolariak hauek izan ziren: Oier Kañamares, Jose Antonio Etxeberria eta Julen Larrea.**

### Jaietako bideo ugari sarean

Etxekoen animo ugari jaso zituen Iker Vicentek. NoauaTB gure web orriko bideo kanalean ikusiko duzue zein estua izan zen finala, eta zer nolako animoak jaso zituen txapeldunak.

Jaietako bideo gehiago ere aurkituko dituzue bertan: Dantzari gazteen saioa, Soka dantza, azken traka, gaztetxearen aldeko manifestazioarena...



LEHIAREN INGURUKO BIDEOA ZEIN BESTE BIDEOAK ESKUKO TELEFONOAN IKUSTEKO, HAUXE DUZUE KODEA.

## Uztailaren 14an, herri batzarra Aginagan

Bidean Agiñatarron Herri Elkarteak herri batzarrera hurbiltzeko deia zabaldu du: “uztailaren 14an larunbata, arratsaldeko 18:30ean, Aginagako ludotekan”.

Hauek izango dira batzarrean hizpide izango dituzten gaiak: “Eliza Zarraren konponketa noiz hasiko den eta zer nola izango den eta sortzen diren beste gaien inguruan hitz egingo da”.

## Odol ematea, uztailaren 9an

Berez, bi hilero, lehen astelehenean izaten da odola emateko aukera. Uztailerako iragarria dagoen hitzordua ordea astebete atzeratuko da, joan den astelehena uztailaren 2a baitzen, Santixabel Eguna, jai eguna Usurbilen. Honenbestez, hilaren 9rako finkatu dute odola emateko datorren saioa. Ohiko leku eta orduan; 18:00-20:30 artean, anbulatorioan.

Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

Zuen publizitatea hemen
✆ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

URDAINTZI
eraikuntzak
✆
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

### Etxebizitza

- Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462
- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.
-Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com
-Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, loradegia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairukoa, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
-Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
-3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara,igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berritua, fatxada,teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
-Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

### Salerosketak / garajeak

- Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com
- Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.
- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deportiboa eta erruberak zabaltzeko piezak. 609 928 387.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar dugu, Xarman. 943 368 771.
- Larunbat eta igandeetarako barrarako langile bat behar da Xarma tabernan. 943 368 771.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

#### Lan-eskaintzak

- Usurbilen bizi den pakistandar batek, ingeles klaseak emango lituzke gaztelania edo euskararen truke. 632 418 008. Raheem Abdul.
- 21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)
- Ingeles natiboak klaseak eskaintzen ditu uztailean Usurbilen, 10 urtetik gorakoei 686 499 775 (Toby).
- Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerreko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
-Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
-Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
-Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
-Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
-Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
-Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
-Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Angora arrazako 10 katu txiki oparitzen ditut. Tlf.: 628 745 443.
- Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon"en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinean. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitsitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen,ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

Ohar, zorion agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna:
**ASTEARTEA, EGUERDIKO 11:00ETAN**
**erredakzioa@noaua.com**



**Zorionak Noa!** Gure *Bitxitoak* konturatzerako hiru urte beteko ditu. Hiru muxu potolo Araia, Amatxo eta Aitatxoren partez.



**Zorionak Danel!!** Gure etxeko gixontxoak dagoeneko bi urte beteko ditu uztailaren 11ean. Etxekoen partez muxu erraldoi bat, amatxorentzat ere.

Hamaika
ikusteko, bizitzeko



LTD/Euskaltel



Ordenagailuan



Ipad/Tablet



Mugikorrean

# Nazioa eskura

www.hamaika.tv

# Ederty zaitez!
















